


# "Abertzale guztiak hemen egotea da gure helburua"

GAIB



## Bai Independentziari Herri Ekimenaz, Txillardegirekin.

Joseba Barriolaren elkarrizketa.

**Kontaiezazkiguzu Bai Independentziari ekimenaren lorpenak, betegabeak, ezinak...**

**Txillardegi.** Iruditu zaigu Europan ez dela urte askotan orain agertzen ari dena gertatu: alegia, nazio berriak bere buruaren jabe ikusi ditugula sortzen, batez ere Ekialdeko lurraldeetan. Arazo hori ez da bukatu; hor dugu Eskoziako kasua, adibidez. Giro honetan, normala zen Euskal Herrian abertzale jendeak pentsatzea momentu egokia etorria dela. Joera independentistak indartsu daude momentu honetan, eta bidezkoa zen Euskal Herrian horrelakorik sortzea. Interesantea litzateke Euskadi Askatua defenditzen duten guztiak horrela, mugimendu batean elkartzea, siglen gainetik ere, siglen bidez ezina bada.

Gure helburua da abertzale guztiak *Bai Independentziari* ekimenean egotea. Ateak irekita daude eta abegi onez hartzen dugu edonor; abegi onez abertzaletasunaren alde aritzeko eta ez noski joko politikitara sartzeko.

**Zertan dago batasun asmo hori?**

**Tx.** Gertatzen dena oso ezaguna da. Alderdi politikoak beren joko politikoetan daude;


beren taktikak hor daude; beraien estrategiak ere hor daude. Eman dezagun -dudagarria bada ere-, eman dezagun estrategia horiek ez direla aldatu... Alderdi batzuk, aparatu batzuk behintzat, garbi dago alde ez daudela. Joku espainol batean bait daude sartuta. Eta horien eskutan edo horien esanetara dagoen jendea ez da atrebitzen. Ikusiko dugu, dena den, Hondarribi eta Hendaia-ko Aberri Egun bateratu horretan zer pasatzen den. Baina sintoma guztiek aditzera ematen dute alderdi abertzale batzuk, ez bakarrik ez dutela lagunduko, baizik kontra aterako direla.

**Zer lortu da eta nolako eragin soziala duzue?**

**Tx.** Bereiztu egin behar dira gauzak. Alderdi politikoetako aparatuak begiratzen baditugu, garbi independentziaren alde azaldu den bakarra HB izan da. Zenbait udaletxetan EAkoak ere argi eta garbi azaldu dira independentziaren alde. Prueba da burujabetasunaren aldeko aldarrikapena egin duten 63-64 udaletxe horietako askotan, EAko zinegotzien botua jaso duela proposamenak. Garaikoetxeak berak Bruselaserako martxan parte hartzeari baiezkotzea eman ▶

Hirugarrenean ez, laugarrenean lortu genuen elkartzea. Tartean, hau dela eta, Senatuko soldata kendu diotela, paperak, legeak eta horrelako eginbeharretan aritu beharra. Azkenean, patxada pixka batekin, elkartu nintzen Txillardegirekin. Hau izan zen gure solasaldia.

"Gauzak dauden bezala, arazo nazionala nagusia dela momentu honetan"



zation, nahiz eta gero, eta ez dakit zergatik, ez zen azaldu, ez bera, ez Azkarraga edo EAko buruzagiren bat edo beste.

Esaten dute ekimen hau kontrolatuta dagoela, ezker abertzalearen asuntza dela. Gure herri honetan askotan gertatzen da gauza bera. Asmo abertzale bat bideratzen bada, eta indar hartzen badu, berehala hasiko da mamua: "hemen, betikoak daude atzean". Horren esperientzia piloa daukat nik: *Euskal Herrian Euskarazekin gertatu zena, Egunkariarekin gertatzen ari dena...* Gauza baldin eta nahiko ondo bideratuta badao

abertzaletasun aldetik, automatiko, aitzaki hori izaten da.

Jendearen artean, ordea, iruditzen zait jende asko dagoela honen alde. Alderditakoek eta definitu gabekoek, siglarik gabeko jendeak, alegia, begi onez ikusten dute asuntza.

#### Noizko duzue *Independentzia Festa*?

**Tx.** Aberri Eguna, Hondarribian eta Hendaian, baterakoia izango da. Uste dut festa ederra izango dela. Sinbolismo handikoa. Oso ideia onak daude eta jai hunkigarria aterako dela uste dut. Alde bate-

an eta bestean ekintza simetrikoak egingo dira, bertsolariak izango dira gurutzatuak... Ez dakit hori izango den independentziaren aldeko festa: *Bai Independentziari* ekimenaren ekintza handia izango da. Baina benetako *Independentzia Festa*, independentzia lortzen dugunerako espero dut.

#### Zer adierazi nahi duzue atera dituzuen kartel horiekin, Nafarroako Antso Azkarrenarekin adibidez?

**Tx.** Kartelak eta abar egiteko, komite bat dago. Horretan parte hartzen duen jendeak pentsatu zuen komeni zala pertsonaia ezagun batzuk jartzea. Gero etorri dira kritika batzuk. Neronek ere egin nituen: zergatik horiek eta ez beste batzuk? hori, gehiago landu eta aztertu egin behar zela.

Nafarroako Antso Azkarren kasuan pentsatu zen noizbait Euskal Herria batu zuen pertsonaia bat azaltzea. Campion eta beste batzuren iritzi, errege hori izan zen etnia gutzia batu zuena. Polemika historiko horietan sartzeak ez du batere garrantzirik honelako asuntzotan, sinbolikoa bait da batez ere. Dударik gabe, garai haiei ezin zaie gaurko eskema aplikatu. Pentsatzen badugu nazio modernoa sortu zela industrializazioekin eta burgesiarekin, orduan, hori anakronismoa litzateke.

#### Independentzia al da gaur egun bultzatzaile eraginkorrena?

**Tx.** Hor maila batzuk daude: autonomia, autodeterminazioa, independentzia. Momentu batzutan, ematen zuen autodeterminazioak gaina hartua zuela. Autodeterminazioa, egia esan, ez da helburu bat, pausu bat baizik, zerbait definitzeko. Eskubidea, zerbait egiteko. Zer egiteko? Hor dator aukera zabala: autonomia, herri zatitua, independentzia... Eta iruditzen zait herri honetan oinarri soziologiko sakonak dituela. Gero, nahasten da hori klase burruka eta faktore ekonomikoekin eta abar... Polemika horiek gauza pixka bat ahaztu arazi zuten bolada batez. Baina nik uste dut funtsean ez dagoela dudarik: gauzak dauden bezala, arazo nazionala nagusia dela momentu honetan. Euskal Herriaren kontrako joera, adibidez, Espainian, ez da eskubiaren eksklusiba. PP bezain antieskalduna da PSOE. Borroka nazionalak klaseak gurutzatzen ditu.

#### Ekimen honetan euskarak bere lekua hartu al du?

**Tx.** Nik uste dut baietz. Momentu honetan kontzientzia azkartzen ari da. Azkeneko ekintzetan (Hiru Erregeen Mahaian eginikoa, Bruselasekoa, eta datorren Aberri Egunean) erabakita dago eta batere eztabaidarik gabe, dena euskara



Ekintza hauek,  
ekintza  
sinbolikoak  
direnez batez ere,  
euskaraz  
dira.



hutsez egingo dela. Ekintza hauek, ekintza sinbolikoak direnez batez ere, euskaraz dira. Badaude erdaldunak ere *Bai Independentziari* mugimenduan, noski, eta bilere-tan erdara ere entzuten da zerbait. Baina joera orokorra euskaraz egitekoa da.

**Bruselasera joan zintean, esan zenuen Bruselas dela Europako sinboloa. Zein Europaren sinboloa? Zergatik aukeratu zenuten Bruselasera joatea?**

Tx. Benetako Europa, jakina, herriek osatzen dute, eta Europako parlamentua ez dute osatzen herriek baizik eta gobernuek. Han Euskal Herriak ez du ordezkariirik; han ordezkariak Espainiakoa estatuak dauka. Sentidu horretan pentsatzen dugu Europa hau ez dela gurea. Hala ere Bruselasera zergatik?

Gu gara bi alderditan zatiuriko herria eta gurea bezelako arazoa badaukate beste herri askok. Hori azpimarratzeko pentsatu genuen joan behar genuela estatuaren gainetik legokeen sinbolo batera; eta, nahiz eta aski teorikoa izan, estatuaren gainetik dagoen sinboloa Bruselas da, zentzu batean. Bruselasek ordezkatzeko du alde batetik estatuaren Europa, eta hori da herrien etsaia. Baina Bruselasek badu beste alde bat. Belgikako kapitala. Eta Belgika bi-nazionala da, flandriarrak eta waloniarrek, eta Bruselas, nahiz eta geografikoki Flandria izan, politikoki Belgikar estatuaren

hiriburua da. Horrela, nolabait esateko, Bruselas, herri bi-nazional baten sinboloa ere bada.

**Euskal Herriko ordezkariak ez ziren joan. Baina bai al du euskaldunen herriak ordezkariirik?**

Tx. Euskaldunok ez dugu gobernuirik. Daudenek euskal mundua ordezkatzeko dutela pentsatzea gezurra da: ordezkatzeko dute indar politikoen korrelazio bat. Baina, indar politikotik, euskaldunok ez gara ia ezer. Izatekotan, zerbait, HBn. Honek ez du esan nahi HBn ere beste-lakoak gertatzen ez direla, baina behintzat Mahai Nazionalako euskaldunak dira. Noraino ordezkatzeko duten partidu politikoen horiek euskal mundua? Oso gutxi. Partidu politikoen horiek osatutako gobernuek (Jaurleritza edo Nafarroako gobernuak) ez dute ordezkatzeko inolaz ere euskaldunen herria. Buesaren eskutan irakaskuntza jartzeko aski zait niri esateko ez dudala gobernu horrekin ezer jakin nahi. Eta iruditzen zait euskaltzale edonorentzat ere aski beharko lukeela izan.

Txillardegik behin eta berriro gogoratzen dit, eta bereziki eskatzen, argi eta garbi utzeko honako hau: *Bai Independentziari* ekimenak, Euskadi Askatua nahi duten guzti-guztiak elkartu nahi ditu. Ateak irekita daude. Gogo onez gainera. Abertzaletasunaren alde ekiteko, joko politikotik nahi du eta sartu gabe.

## Jesus Egiguren

Mikel Larraz

Jesus Egigurenek, 1984ean, Haranburu Al-tunarenean, *El PSOE en el País Vasco, (1886-1936)*, bere lizentziatura tesia, argitaratu zuenean, "A Assunta" idazten zuen dedikatoriaren orrialdean. Assunta eta Egigurenen



artekoa zertxobait ezagutzen genuenoi, polita ere iruditzen zitzaigula esango nuke: bata LAIAren eskutik HBren ingurumarietara etorria; bestea, EPK-tik PSOEra pasatua. EGINeko langilea hura, parlamentari sozialista hautaberrria hau. Kontrakotasun politiko hain nabarmenaren gainetik, -edo azpitik, berdin zaio-maitasunezko harreman personal hura ikustea harrigarri samarra gertatzen zitzaigun, seguruenik, eta gure adimenaren barrenetik, gaiztotasunaren iratxoak esaten zigun: "ikusiko dugu zenbat irauten duen; ikusiko dugu nola amaitzen den". Orduango gure gaiztotasun-senak iragarri baino okerrago, are okerrago, amaitzen ari da, aidanez, asuntua.

Duela aste batzuk, epaitegian salatu zuen Assuntak Jesus Egiguren, honek bortziki egurtu zuelako. Forensearen behaketak ezpairik gabe baieztatu zuen emakumearen salakuntza. Handik ordu gutxiratu, ordea, Assuntak erretiratu egin nahi izan zuen salakuntza, esanez ez zela egia, etxean izandako istripu batean eginak zituela ubeldurak, nerbiotatik jota zebilelako senarra salatzea bururatu zitzaioela. Pelikula bat. Epaitegiaren behin eta berriro entzun duten gidoi berbera, emakumeek jasandako tratu txarren salakuntzak, apurka bederen, bertara heltzen hasi direnez geroztik. "Etxeko sukaldaren izandako istripuaren fabula" deitzen diote, elementu no-belesko hori ia beti-beti agertzen bait salakuntza kentzekorakoan.

Duintasan minimoren bat duten epaileek badakite ho-

rren atzean egon ohi den egiazko nobela beltza: senarraren, haren inguruko eta batzutan jipoi-tutako emakume beraren inguruko presioak; ez zeru eta ez lur gertzeko arrisku izugarria; berriro halakorik ez dela gertatuko esperantza; etsipena; haurrengatik kezka. Duintasunaz aparte informazio apur bat duen epaile donostiarrak badaki une honetan Assuntak Donostiako Udaletxean egun duen lanbidea Odon Elorza alkate sozialistaren diskrezionaltasunaren pean dagoela, alegia J. Egiguren oso hurbileko norbaiten esanera, bete-betea. Eta neke handirik gabe jakin zezakeen, baita ere, buruzagi sozialista ezagunek gestio eta presio zuzenak egin zituztela salakuntza erretira zedin. Eta edonork daki, esperientziak, atzera botatuko salakuntza baten ondoren, hurrengo salakuntza etortzen dela, eta hurrengo ukazioa, eta... azkenean hiletan bat.

Horregatik, duintasan minimoa duten epaileek, ofizioz segi arazten dute ausia eta epaitu arazi gizona. Jesus Egigureni gertatu zaiona. Ikusiko dugu zertan geratzen den epaia. Gerta liteke sarkasmorik sarkastikoena ere: egurtutakoa (epaia epai, egia bat, bakarra eta asmatzen oso erraza bait da), gainera kulpante deklaratu gertatzea "salakuntza faltua" egin izateagatik; eta, horren erremate logikoa, lanposturik gabe gertatzea.

Hala balitz, gertakaria "gorabehera pribatua" dela esaka, kaleatan agertu diren karteltxoak kentzen, eta Egiguren aurka neurri bapateko neurri politiko eta organikoak hartu ordezkari haren laguntasan afariak egiten aritu diren beroriek garailu sentituko dira. Beraiek ere trantze berdintsuan aurkitzen direnerako segurtatuta ■